

Resumen Ejecutivo/ Laburpen Executiboa/ Executive Summary

EAEko biztanleriak ekintzailtzaren inguruan duen hautematea

- EAEko helduen ia erdiak (% 47,5) uste du ekintzailtzan jarduteko ezagutza eta gaitasun nahikoak dituela; datu hori egonkor mantendu da aurreko urteekin alderatuta. Ekin dutenen artean, ehuneko hori nabarmen handiagoa da. Zehazki, ekintzailtza-prozesuan diharduten lau pertsonatik hiruk (% 74,7) uste dute negozio bat abiarazteko ezagutza eta gaitasunak dituztela.
- Porrotaren beldurraren hautematea hobetu egin da. Biztanleriaren % 48,9ak beldur hori negozio bat hasteko oztopo gisa hautematen du; hau da, batez besteko historikoa (% 55,3) baino sei puntu gutxiago. Ehuneko hori are txikiagoa da ekintzaileen artean (% 38,6), eta datu hori nabarmen murriztu da aurreko urtearekin alderatuta (% 38,6).
- Lehenengo aldiz, porrotaren beldur diren EAEko biztanleen proportzioa (% 48,9) EBren (% 50,6) zein, besteak beste, Alemaniaren (% 48,8) edo AEBren (% 49,5) batez bestekoaren parean dago.
- Nabarmena ez den arren, biztanleen artean ekintzailtzan jarduteko aukeren inguruko hautematea hobetu egin da, eta, zehazki, % 32,9koa izan da. Datua pandemian erregistratutakoaren (% 16,5) bikoitza da, baina oraindik puntu batzuk falta zaizkio batez besteko historikora iristeko. Nazioarteko testuinguruan, EAEn aukeren inguruko hautematearen datua EBren (% 47,7) zein, besteak beste, Alemania (% 42,7) edo AEBren (% 59,3) batez bestekotik urrun dago.
- Biztanleek ekin duten pertsonak ezagutzeari lotutako datua nabarmen handitu da; izan ere, hamar puntu baino gehiago igo da aurreko urteetako datuekin alderatuta (% 48,6; 2023an % 41,2 eta 2022an % 35,3koa izan zen) eta lehenengo aldiz EBko batez besteko datura hurbildu da (% 52,3). Igoera bereziki nabarmena da ekintzaileen artean; lautik hiruk (% 76,8) adierazi dute ekin duen norbait ezagutzen duela (% 60,7 2023an).
- EAEko hiru pertsonatik batek uste du erraza dela bere kabuz negozio bat hastea, eta erdia baino pixka bat gutxiagok (% 46,6) uste du ekintzailtza lanbide-aukera ona dela; datu horiek egonkor mantendu dira aurreko urtekoekin alderatuta. Hala ere, hautemate horrek hobera egiten du horren baitan ekintzailtzan diharduten pertsonak barne hartzen ditugunean. Hala, ia erdiak (% 45) uste du erraza dela negozio bat hastea, aurreko urtean (% 41) baino lau puntu gehiago.
- Generoaren arloan, eredu batzuk errepikatu dira. Negozio bat abiaraztean porroterako beldurra nabarmenagoa da EAEko emakume helduen artean (% 53,2, % 44,8ren aurrean), aukera gutxiago hautematen dituzte (% 28,9 gizonen % 37,8aren aurrean), eta gutxiago dira negozio bat hastea erraza dela uste duten emakumeak (% 31, gizonen % 35,5aren aurrean).
- Lehenengo aldiz txosten honetan, biztanleek bere lanbidearen inguruan duten gogobetetasuna aztertu da. EAEko helduen ia erdia (% 51,2) pozik edo oso pozik dago bere lanbidearekin. Ehuneko hori ia hogeita hamar puntu handiagoa da (% 77,7) ekintzaileak barne hartzen direnean.

Dinamika eta jarrera ekintzailea EAEko helduen artean

- EAEko ekintzailetza-jardueraren tasa (TEA) 2024an helduen artean % 6koa izan da; horrek adierazten du egonkortasuna lortu dela, eta azken urteetan zehar hazkuntza egonkorra egon dela. Hala, 2004tik serie historikoko batez bestekoa (% 4,7) gainditzen duen TEA tasa (% 6) duten urteak kateatu ditu.
- Euskadiko biztanleriaren % 6,8ak adierazi du hurrengo hiru urteetan ekiteko asmoa duela. Aurreko urteekin alderatuta pixka bat jaitsi bada ere, EAEn puntu erdiko distantzia mantendu da serie historikoaren batez bestekoarekiko (% 5,8), ekintzailetza potentzialaren tasari dagokionez.
- EAEko helduen % 5,8k 42 hilabete baino gehiagoko jarduera duten negozioak ditu. Duela bi urteko tasarekin alderatuta ia puntu oso batean berreskuratu bada ere (% 4,9), oraindik azken bi hamarkadetako batez besteko datuaren azpitik dago (% 6,6).
- 2024an, helduen % 1,7ak adierazi zuen jabe zen negozio bat itxi, saldu edo utzi zuela, aurreko urtean baino 0,5 puntu gutxiago. Beste batzuen eskura jarraitu zuten negozioak kenduta, 2024an itxitako negozioen benetako tasa % 0,9koa izan zen, 2023ko datua baino bost hamarreko gutxiago (% 1,4).
- Oraindik ere, ixteko arrazoi nagusiak lotura du errentagarritasun faltarekin (% 30,1). Hortik abiatuta, arrazoen kasuistika oso anitza da: negozioarako beste aukera bat aurkitzea (% 15,2), eskualdatu edo saltzeko aukera (% 13,9), finantzaketa lortzeko arazoak (% 14) edo enplegu berria lortzea (% 14).

EAEn ekiten duten pertsonen profila

- EAEko ekintzaileen % 58,6 gizonak dira, eta % 41,4 emakumeak. Genero-arloan ia berdintasuna mantendu den hainbat urte igaro ondoren, oraingoan berriz gizonak izan dira lurraldean gehien ekin dutenak.
- Jaitsiera nabarmena egon da hasierako fasean ekin duten biztanleen batez besteko adinean: 2024an 44 urtetik 38ra jaitsi da; azken hamarkadako daturik baxuena.
- Aurreko urtean bezala, emakume ekintzaileak, batez bestean, gazteagoak dira (35 urte) gizonekin alderatuta (39 urte).
- EAEn ekiteko asmoa duten biztanleen batez besteko adina mantendu da (38 urte), eta bat dator azken bi hamarkadetako batez bestekoarekin.
- EAE dagoeneko ez dago lehenengo postuan adin-tarte handiagoei (44 urtetik aurrera) dagokien TEAren proportzioaren rankingean. Bestalde, nabarmen handitu da adin-tarte gazteenari (18-24 urte) dagokion TEAren ehunekoa, 2023an % 7,7 izan baitzen, eta 2024an % 14,8ra igo da.
- TEA faseko ekintzaileen erdiak (% 49,5) unibertsitateko ikasketak egin ditu, aurreko urtean baino sei puntu gutxiago (% 56,2); eta % 14,6k graduondoko ikasketak edo doktoretza egin ditu (2023an multzo hori % 22,4koa zen).
- Enpresa bat sortzeko prozesuari ekiteko berriazko prestakuntza handia edo aurreratua dutela uste dutenen proportzioak altua izaten jarraitu du (% 46,8). Hala ere, ehuneko hori txikiagoa da finantza-arloko ezagutzara mugatuz gero (% 38,6), batez ere emakume ekintzaileen kasuan (% 30,5).

- Igoera nabarmena egon da atzerriko TEA biztanleriaren proportzioan % 3,8 izatetik 2024an % 15,5era igo baita. Horren erdia (% 54,6) Europako beste herrialde batzuetakoa da. Bestalde, gutxi gorabehera, EAEn ekiteko asmoa dutenen artean hirugarren herrialdeetan jaio diren pertsonen proportzioa mantendu egin da (% 17,6, 2023ko % 16,3arekin alderatuta).
- Ekintzailertzan diharduten eta munduan aldaketa eragiteko egiten dutela adierazi duten biztanleen proportzioaren kasuan, maximo historikora iritsi da (% 41,3, 2023ko % 21,4aren aurrean). Aberasteko edo errenta altuak lortzeko ekiten dutenen proportzioak ere gora egin du (% 40,8, 2023ko % 37,5aren aurrean). Bestalde, "familia-tradizioarekin jarraitzeko" ekintzailertza bere posizioan mantendu da (% 22), eta, gehien aipatzen dena izaten jarraitu badu ere, "lan-eskasia dela-eta ogibidea izatea"rekin lotutako aukera pixka bat jaitsi da (% 52,7, 2023ko % 53,9aren aurrean).

EAEn ekin duten pertsonen sortutako negozioen ezaugarriak

Jarduera ekonomikoa

- Zerbitzu tradizionaletara bideratutako ekintzailertza-jardueraren tasaren proportzioak handiena izaten jarraitu du. Hamar proiektutatik sei (% 61,6) lotuta daude jarduera horrekin.
- Maximo historikora iritsi da industria-proiektuei lotutako TEA tasaren proportzioan. % 12ra iritsi da, aurreko urteen ia bikoitza.
- Zerbitzu aurreratueta bideratutako TEAren proportzioa hamar puntu jaitsi da (% 10,9, 2023ko % 20aren aurrean).
- Lehen sektorearekin (% 1,2) eta eraikuntzarekin (% 2,8) lotutako biztanleria ekintzaileen proportzioa bere horretan mantendu da.
- Zerbitzu tradizionaletan ekiten dutenen artean, emakumeek proportzio handiagoa hartzen jarraitu dute (% 70,3, gizonen % 55,5aren aurrean). Industria-sektorean, arrakala badago ere, nabarmen murriztu da hasierako fasean dagoen negozioa duten biztanleen artean (finkatutako negozioen aurrean).

Forma juridikoa

- Autonomo edo banakako enpresariaren figurarekin hasierako fasean jarduten duten negozioen proportzioak behera egin du (% 42, % 52,2aren aurrean), eta forma juridiko horrek finkatutako negozioen biztanlerian duen pisu erlatiboa baino hamar puntu txikiagoa da (% 51,6).
- Sozietate mugatua eratzeari lotutako forma juridikoak pisua hartu du. Hasierako fasean dauden hamar negoziotatik hiruk (% 29,3) figura hori aukeratu dute, aurreko urtean baino bost puntu gehiago (% 29,3).
- EAEko negozio berria dutenen artean kooperatibek duten pisu erlatiboa bere horretan mantendu da; izan ere, % 5,3a osatzen dute (% 5,9a 2023an), negozio finkatuetan

duten presentziaren antzeko kopurua (% 6,5). Berriz ere, ikusi dugu forma juridiko horrek garrantzi handiagoa izan duela bi faseetako Espainiako datuarekin alderatzen bada (% 4 eta % 2, hurrenez hurren).

Enpleguaren tamaina eta sorkuntza

- Igoera neurrizkoa izan da sortutako negozio berrien batez besteko tamainan. Enplegatuak dituen TEaren proportzioa egonkor mantendu da (% 33,9, aurreko urteko % 34,4aren aurrean), baina plantilla handiagoa duten proiektuen pisu erlatiboa handitu da.
- 20 pertsona baino gehiagoko TEaren proportzioan marka egon da (% 5,6, 2023ko % 1,5aren aurrean), baita proiektu bakoitzeko enpleguen batez bestekoan ere, aurreko urtearekin alderatuta bikoiztu egin baita (5 enplegatu, 2023ko 2,3en aurrean).
- Errekorra hautsi da azken urtean kontratuak egin dituzten hasierako negozioen proportzioan. Egin zuten artean, maximo historikora iritsi dira proiektu bakoitzeko batez besteko kontratazio-kopuruan (18, 2023ko 3en aurrean).
- Maximora iritsi dira bost urte barru 5 pertsona baino gehiagoko plantilla izatea espero duten (% 25, 2023ko % 15,8aren aurrean) edo 20 pertsona baino gehiago edukitzea espero duten (% 8,4, 2023ko % 3,7aren aurrean) TEaren proportzioak.

Berrikuntza eta nazioartekotzea

- Inoiz ez bezalako igoera egon da EAEn sortutako negozioen joera berritzailean. Errekor absolutua egon da berrikuntzaren intentsitatean, bai produktuan/zerbitzuan, bai erabilitako prozesuetan.
- Lehenengo aldiz, hasierako faseko ekintzaileen erdiak baino gehiagok produktuan/zerbitzuan nolabaiteko berrikuntza txertatu du (% 65,8, 2023ko % 35,3aren aurrean), baita erabilitako teknologietan edo prozesuetan ere (% 63,9, 2023ko % 31ren aurrean). Bi kasuetan, hamar puntu baino gehiagorekin gainditu dira finkatutako negozioen biztanleriaren ehunekoak.
- Igoera hori gorabehera,, berrikuntza-intentsitate handieneko hasierako faseko negozioen proportzioa bere horretan mantendu da, txertatu dituzten berrikuntzen irismenaren arabera. % 5,3k mundu-mailako irismeneko edo irismen globaleko produktueterako berrikuntza txertatu dute (% 5,6 2023an), eta kopuru hori % 6,5ekoa da erabilitako prozesu edo teknologien ikuspuntutik txertatutako berrikuntza hartuz gero (% 6,4 2023an).
- Berrikuntzaren arloko genero-arrakala murriztu egin da, nahiz eta gizonen zuzendutako negozio berritzaileen proportzioak handiagoa izaten jarraitzen duen.
- Nazioartekotzeari dagokionez, atzerriera saldu duten hasierako faseko negozioen proportzioa bere horretan mantendu da (% 25). Hala ere, igoera nabarmena egon da fakturazio osoaren % 25 baino gehiago esportatzen duten negozioen proportzioan.

Ekintzaileraren prozesuaren finantzaketa

- EAEko hasierako faseko ekintzaileek negozioak martxan jartzeko erabilitako batez besteko diru-kopurua 25.500 eurokoa izan da, Espainiako multzoak baino 10.000 € gehiagokoa (15.000 €).
- Gizonek emakumeek erabilitako kapitalaren bikoitza baino gehiago erabili dute ekiteko (30.000 €, 12.204 euroren aurrean).
- Ia-ia guztiek (% 91,2) aurrezki pertsonalak erabili dituzte, eta horri esker behar izan dituzten hamar eurotatik sei finantzatu ahal izan dituzte.
- Hala ere, aldi berean, igoera orokorra izan da ekintzaileek finantzaketarako erabilitako kanpo-iturrien erabileran.
- Erakunde finantzarioek gero eta garrantzi handiagoa dute EAEko ekintzailetza-prozesuaren finantzaketan. % 43,6ak finantzaketa-aukera hori erabili du, serie historikoko marka hautsiz.
- Marka hautsi da laguntza-programak eta dirulaguntzak erabili dituztenen proportzioan ere (% 36,6), baita inbertsio espezializatua eta crowdfunding kanpainak erabili dituztenen artean ere (% 21,2).
- Ondo ondoko hirugarren urtez, maximo historikoa lortu da EAEko inbertsio formalaren tasan. Biztanleria helduaren % 7,7ra iritsi da, Espainiako rankingeko bigarren postua lortuz, Madrilgo Erkidegoaren atzetik (% 8,8).

Digitalizazioa eta Adimen Artifiziala (AA)

- Igoera oso nabarmena egon da datozen hilabeteetan digitalizazio-prozesuak areagotzeko asmoa duten negozioen proportzioan. TEA biztanleriaren % 61,3ak adierazi du hala egingo duela (2023an % 38,7koa izan zen datu hori), finkatutako negozioa duten biztanleriaren datua zazpi punturekin gaindituz (% 54).
- Biztanleria ekintzaileak nabarmen goraipatzen ditu baliabide digitalak, bezeroekin harremanetan egoteko eta negozio-estrategia ezartzeko bide gisa.
- Adimen Artifiziala dagoeneko negoziarako baliabide estrategiko garrantzitsutzat hauteman da. Hasierako fasean dauden lau negoziotatik hiruk (% 74,4) uste dute garrantzitsua edo oso garrantzitsua dela horiek izartzea, eta datua % 83,6ra iristen da tresna horiek urte batzuk barru izango duten garrantziari buruz galdetuz gero. Ehuneko horiek are handiagoak dira negozio finkatuak dituzten biztanleriaren erantzunekin alderatuz gero (% 62,2 eta % 75).
- Biztanleria ekintzaileak batez ere AAri lotutako inpaktu positibo eta negatiboak hautematen ditu. Hamar negoziotatik ia zortzik hautematen dute tresna horiek ahalmen handia dutela bezeroen aurreko esperientzia hobetzeko, prozesuen produktibitatea eta efizientzia handitzeko eta salmentak ere handitzeko; hala ere, aintzat hartu da ezarpenarekin, segurtasunarekin eta datuen pribatutasunarekin edo enplegatuen erresistentziarekin eta arazo etikoekin lotutako arazoak ager daitezkeela.

Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunera bideratzea

- Ingurumen- eta gizarte-eraginak (% 56,4 eta % 64,6, hurrenez hurren) dituzten hasierako negozioen proportzioa handiagoa izan da finkatutako negozioen datuekin alderatuz gero (% 49,2 eta % 54, hurrenez hurren).

- Hasierako fasean dauden hamar negoziotatik seik negozioaren ingurumen-inpaktua murrizteko neurriak (% 58,7) hartu dituzte, baita gizarte-arloko helburu jakinak betetzekoak ere (% 60,7).
- Emakumeek zuzendutako negozioetan ardura handiagoa dago negozioen dimentsio soziala eta ingurumenekoa artatzeko orduan.
- Igoera nabarmena egon da Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) zer diren badakiten ekintzaileen proportzioan. Hasierako fasean dauden negozioen % 61,3ak adierazi du ezagutzen dituela (2023an % 39,6 ziren), eta finkatutako negozioen kasuan kopuru hori % 57koa da (2023an % 32 ziren).